

eman to zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA



ENPRESA ZUZENDARITZA BERRIKUNTZAREN ETA INTERNAZIONALIZAZIOAREN IKUSPEGITIK MASTERRA

www.ehu.es

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gaur egun enpresa eta erakundeek erronka ugari egin behar diete aurre, horien artean garrantzitsuenak dira globalizazioa, ezagutzaren eta ezin ukituzkoen garrantzi gero eta handiagoa, ziurgabetasunaren areagotzea, eta horrek guzti horrek merkatuetan eragiten dituen arriskuak. Enpresetan berrikuntza sustatzeko eta horien nazioartekotzearen garapenak garrantzi berezia hartu du; ez enpresaren ikuspegitik bakarrik, baita ekonomia eta gizartearen aurrerapenaren aldetik ere. Testuinguru honetan, Masterrak helburu bikoitza dauka: alde batetik, doktore tesiarekin formakuntza amaituko duten enpresa arloko hainbat esparrutan espezializatutako ikertzaileak prestatzea; eta beste alde batetik, trebakuntza zientifikoa eta metodologikoa sendoa eskaintzea, ikasleek ikerketa aplikatua gauza dezaten. Masterrak zenbait erakunde laguntzaileekin praktikak egiteko aukera ematen du; eta gainera, titulazio bikoitza egiteko hitzarmena dauka «Droit Economie Gestion» Mention «Management» Spécialité «Recherche en Gestion des Organisations», L'Université de Bordeaux-eko (Frantzia) Masterrarekin.

SARBIDEA

Lehentasuna izango duten titulazioek:

- Aktuariatza eta Finantza Zientzietako Gradua/Lizentziatura
- Ekonomiako Gradua/Lizentziatura
- Enpresa Zientzietako Gradua/Diplomatura
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua/Lizentziatura
- Industria Ingeniaritza/Ingeniaritzako Gradua
- Informatikaren Ingeniaritza/ Informatikaren Ingeniaritzako Gradua
- Itsasontzi Mekanikako Gradua/Diplomatura
- Politika eta Administrazioa Zientzietako Gradua/Lizentziatura
- Telekomunikazioko Ingeniaritza

Beste Gradu edo titulu baliokideak Batzordearen irizpidez.

IRTEERA PROFESIONALAK

Arlo akademikoan zein enpresa munduan; ikerketa, irakaskuntza, enpresa-kudeaketa. Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza doktoretza programara sarbidea ere ematen du.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (Bilbao).

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania.

Gutxi gorabeherako prezioa:

1.850-2.050 €.

Egutegia:

Urritik ekainera, arratsaldez.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Hautazko
Gaiak

48 ECTS kreditu

Proiektuak /
Ikerketa-lanak

12 ECTS kreditu

Guztira

60 ECTS kreditu

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Zuzendaritzaren oinarri teorikoa estrategiak.
- Ikerketaren oinarri metodologikoak zuzendaritza eta enpresaren ekonomia.
- Berrikuntzaren kudeaketa enpresa txiki eta ertainetan.
- Globalizazioa eta finantza-kudeaketa.
- Inbertsio-funtsen (bermatutako egiturak) zorroen kudeaketarako tresna aurreratuak.
- Berrikuntza inbertsio-fondoan zorroen kudeaketan.
- Berrikuntza pentsio-funtsen zorroen kudeaketan.
- Barne-kontrola kudeaketarako eta sinesgarritasunerako tresna gisa.
- Zuzendarien prestakuntza.
- Enpresa nazioartekotzeko estrategiaren ikerketa.
- Familia-enpresaren gobernu eta kontrola.
- Merkataritza-jardueraren plangintza estrategikoa.
- Enpresarako aldi baterako serieen analisia.
- Ekonometria aurreratuak: mendeko aldagai kualitatiboak eta mugatuak.
- Enpresa arloko ikerketarako aldagai anitzeko analisisien ereduak eta teknikak.
- Enpresari aplikatutako optimizazio-teknika kuantitatiboak.
- Enpresa-estrategiarako jokoaren teoria.
- Marketing ekologikoa: garapen iraunkorrerako ikerketa-estrategiak eta -teknikak.
- Kontsumitzailearen portaera eta marka zuzendaritza: ikerketa metodoak.
- Hiri eta norako berritzaileetarako marketing-zuzendaritza. Merkataritzarako, aisiarako, gertakizunean antolakuntzarako eta turismorako proposamen estrategikoak eta ekintza-planak.
- Banaketa: analisi teorikoa eta egungo eta etorkizuneko formulak merkaturatze-kanaletan.
- Marketinga Eskualdeko eta Tokiko Sektore Publikoetan: joera berriak garapen iraunkorraren helburuak betetzeko sektore publikoen kudeaketan.
- Lurralde marketinga: politika-, gizarte- eta ekonomia-inplikazioak testuinguru globalizatu batean.
- Administrazio Publikoetako finantza informazioaren nazioarteko ikuspegiak eta analisia.

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Vanessa Apaolaza Ibañez

Tel: 946013706

Posta elektronikoa: vanessa.apaolaza@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

